Eragiteko JANZTEN

Gasteiztar euskaltzaleon gogoetarako une eta guneak

BERRINDARTU ETA JAUZI
txosten-proposamena

MARTXOA
23
asteartea

18:30
Oihaneder euskararen etxean

Jasone Mendizabal eta Iñaki Martinez de Luna (Topalabe taldea)

Bizi dugun abagune historiko honetan aukera dugu hizkuntzaren biziberritze-prozesuan jauzi kualitatiboa emateko. Aukera, eta baita premia ere, genituen erronkei, berriak gehitzen ari baitzaizkie, eta aurreko hamarkadetan aurreratutakoa indartzen, elikatzen eta zabaltzen ez bada, irabazitakoa galtzeko arrisku bizia baitugu.

Testuinguru aldaketa honetan, Topalabe taldeak ***Berrindartu eta jauzi*** izeneko txostena landu du, hurrengo hamarkadetan euskararen erabileran jauzi hori lortze aldera eman beharko liratekeen pauso handiak irudikatu eta lehentasunez jorratu beharko liratekeen esparruak identifikatu nahian.

Txostenak garrantzi handia ematen dio, luzera begira, lankidetza publiko-soziala eraikitzeko 3 zutabetan ezarri den oinarriari: administrazioen arteko lankidetza, erakunde publiko eta sozialen artekoa eta euskalgintza barrukoa.

Horiek esanda, jauzi handia gutxienez bi esparrutan eman behar dela azpimarratzen du txostenak:

· **esparru ez-formalean,** gazteak hezkuntza-sistemaren barruan dauden bitartean irakaskuntza prozesuaren ezinbesteko osagarri izan dadin.
· **eta arlo sozioekonomikoan,** hezkuntza-sisteman euskara biziberritzeko egindako ahaleginari segida naturala emango diezaion.

Eta horretarako ezinbestekoak izango dira instituzioen eredua eta gidaritza, euskal hiztun komunitatearen aktibazioa eta sektore guztietako entitateek protagonismoa hartzea.

IZEN-EMATEA:

https://labur.eus/eragiteko-janzten

Antolatzaileak

arabagara euskaltzaleen topagunea · GEU ELKARTEA · LAZARRAGA KULTUR ELKARTEA · ALEA · euskaltzaleen topagunea

Babesleak

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz / Vitoria-Gasteizko Udala · LABORAL kutxa